

La Victoire itsasaldian/estropadan parte-hartzea.

Nabigazioa: Eskarmentu handiko patroidun bela-ontzietan, segurtasuneko eta ontziratzeko legezko neurri guztiak betez. 8/12 tripulatzaileraino (luzeraren arabera). Itsasaldia beste belaontzi batzuekin (gutxi gorabehera 30ekin) batera egingo da. Hona hemen horietako baten argazkia:



Planteaturiko jarduera:

Ekainaren 8a, osteguna. 20:00etatik aurrera **Itsas afaria musikaz aire zabalean** parte-hartzaile guztiak Pasai Donibaneko zabaldian. Belaontzian lo egingo da, Donibaneko kai edo ontziralekuan lotuta.



Ekainaren 9a, ostirala. Itsasaldiko/estropadako belaontzi guztiak (denak batera) irtengo dira 11:00 a.m. Pasai Donibanetik. Itsas bidaia hasiko da belaz.

Belaz nabigatzea. 150 milia sentipenak partekatu eta belaontzian nola ibili ikasteko.



Ekainaren 10a, larunbata. Port Medoc-era (La Gironde) iristea, gutxi gorabehera 150 milia egin ondoren. Nabigazioa belaz bakarrik egingo da eta gutxi gorabehera 30/35 orduko iraupena izango du.



Ekainaren 11, igandea. Gaua belaontzietan eman ondoren, 13:00ak aldera **pique-nique bazkaria** Cordouan itsasargi edo faroko hareatzan, faroa ere ikusiko dugularik. 18:00/19:00etan Donostiara itzuliko gara errepidez (antolatzaileen autobusean). 22:00ak aldera iritsiko gara Donostiara.



Prezioa pertsonako: 400€

Argibide gehiago: Tfnoa. 618323963 Helb. elek.: Hnabigatzaileak@gmail.com

"La Victoire" itsasaldiaren azalpena



Datorren ekainaren 9an, ostiralean, eta Cercle Nautique du Verdon-ek eta HN Hondarribiko Nabigatzaileak-ek elkarrekin antolatuta, "La Victoire" itsasaldiaren /estropadaren bigarren edizioa izango da.

Itsasaldi/estropada honek "La Victoire" izeneko belaontzian Lafayette markesak (frantziar eta amerikar heroi nazionalak) 1777. urtean Bordele eta Pasaia artean egindako itsas bidaia gogorarazten du, ingelesten aurka amerikar independentistei laguntzeko Estatu Batuetara egin zuen lehen bidaiaren aurretiko urratsa izan zelarik.

Ekainaren 8an, ostegunean, irteeraren bezperan, bisita egingo da Albaola itsas faktoriara (Pasaian dagoen proiektua, nabigazio-tradizioa berreskuratzeko, beste jarduera batzuen artean XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreprodukzioa eraikitzen ari direlarik. Bisitaren ondoren, itsas afaria antolatuko da Donibaneko kai edo ontziralekutik gertu (gune historikotik hurbil), non onak izango baitira jan-edana eta musika. Ronaz topa egingo diogu ibilaldiari eta Lafayette-ri.

Irteera ikusgarria itsasadarretik ekainaren 9an, ostiralean, izango da 11:00/12:00ak aldera.

Gutxi gorabehera 150 miliatan euskal costa eta Akitania osoa (Landak, Arcachon) igaroko dugu La Girondoko estuariara (Port Medoc) iristeko.

Igandean, ekainaren 11n, sari-ematea izango da pique-nique bazkariarekin Cordouan faroko hareatzan, eta itsasargia bisitatzeko aukera izango da. Faroa ikusgarria da: 1584 eta 1611 artean eraiki zen sekulako monumentu gisa, eta horregatik jarri zioten «Itsasoko Versailles» ezizena. Jardunean dagoen Frantziako farorik zaharrena da.

4 modalitate daude La Victoire-n parte hartzeko: Bakartiak, Bikoitza, Open (tripulazioa osoa) eta Multikroskoak (baieztatu da bertan izango dela Lalou Roucayrol-en Multi 50

Arkema: 1.a Quebec Saint Malo 2016, 2.a Route du Rhum 2014,... Argazkia doa erantsita)



4 kategorietako lehen sailkatuek beren izena inskribatuko dute antolatzaileek Pasaiaiko Udalari lagatako *La Victoire* maketan, udalak ohorezko leku batean jarriko duelarik ikusgai Pasai Donibanen.

Baina benetan garrantzitsua nabigatzea denez, ibilaldia amaitzen duten belaontzi guztiek trofeo zoragarri bat jasoko dute (Cordouan-go faroaren erreprodukzioa). Bilbotik Arroxelaraino kostako 30 ontzik baino gehiagok parte hartzea espero da. Autobusak antolatuko dira joan-etorrietarako.